

txintxarri



Kontxako Banderaren bila

Euskotren nahiz KAE2 ligetan lehiatu diren herritarrekin hitz egin du TXINTXARRI-k, euren esperientziaren berri izateko / 10-11

AITOR ARRIZABALAGA / EUSKOTREN LIGA

Udako jai giroaren jarraipena

Zaindariaren omenezko festak antolatu ditu Virgen de Guadalupe Extremadura Etxeak, "adin guztientzako" ekimenekin / 4

Emakumearen Zentroko ikastaro edo jabetze eskolan izena eman dezakete herritarrek / 2

Haurrak ahalik eta hiztun osoen izateko GurasoLeku egitasmoa abian jarri dute aurten ere / 3

Kalitatezko hezkuntza bermatuko diete herritarrei eskualdeko zortzi euskaltegiek / 8-9

Buruntzaldea IKTKo igerilari Nahia Zudairek zilar eta brontze bana irabazi ditu Manchester-en / 12

Donostiako Sari Nagusia izango da Hipodromoko udako denboraldiko azken proba / 13

Lasartearra elkarteak 50. urteurrena ospatzeko jardueri berrekingo die, danborradarekin / 15

Progresiboen hilabetea

2x189€
mó betaurreko
progresibo



batzuk eguzkitakoak izan daitezke



R.P.S. 91/20

Kontsultatu optikari kanpainaren ezaugarriak.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA



Hartu
hitzordua
Whpp
bidez

MULTIÓPTICAS
8. urteurrena



Lourdes Acevedo, Agustín Valdivia eta Maite Igleziasek aurkeztu dituzte aurtengo ikastaroak. TXINTXARRI

Emakumeak ahalduntzen jarraitu nahi dute

Ikasturte berrirako prestatu duten eskaintzaren berri eman dute Emakumearen Zentroko kudeatzaileek. Jakinarazi dute hilaren 15era arteko epea izango dutela herritarrek ohiko ikastaroetan nahiz jabetze eskolan izena emateko

Txintxarri

Beste hainbat topagune eta erakunde bezala, Sexuen Elkarbizitzaerako Emakumearen Zentroak (Aralar plaza, 5) ikasturte berriari ekin dio. Iaz bezala, ohiko ikastaro sorta bat eta Emakumeentzako Jabetze Eskola jarri ditu herriko emakumeen eskura. Batean zein bestean

izena emateko azken eguna hilaren 15a izango da, ostirala. Agustín Valdivia alkateak, Gizarte Zerbitzuetako sailburu Lourdes Acevedok eta elkargune hori kudeatzen duen Maite Igleziasek aurkeztu dute aurtengo eskaintza. Xehetasunen berri eman aurretik, hau nabarmendu dute: toki baino inskripzio

gehiago egon ohi direla, eta parte hartzaileak nortzuk izango diren erabakitze zozketa bat egingo dutela hilaren 18an, 12:00etan, zentroan bertan.

Interesa dutenak Aralar plazako egoitzara joan, 943 36 39 58 telefono zenbakira deitu, emakumezentroa@lasarte-oria.eus helbide elektronikora idatzi edo

Eskola materiala erosteko dirulaguntzak aurkeztu ditu Lasarte-Oriako Udalak

Ikasturtea hastearrekin batera, ikasmateriala erosteko laguntzak eskatu ditzakete herritarrek hil amaierara arte

Txintxarri

Iraileko malda arindu asmoz, beharra duten familiei eskola materiala erosten laguntzeko dirulaguntzen berri eman du berriki, Lasarte-Oriako Udalak, eta jakinarazi, 15.000 euroko laguntza lerro bat prestatu dela horretarako. Interesa duten herritarrek, hilaren 29ra arte egin ditzakete eskaerak, nahiz eta hori egiteko zenbait baldintza bete beharko dituzte.

Eskatzaileek jaso dezaketen ekarpena urtean ingresatzen duten diruaren arabera izango da: 25.000 euro edo gutxiago jasotzen dutenek, 110 euroko laguntza izango dute; 25.001 eta 33.000 euro artean ingresatzen dutenek, berriz, 90 euro izango dituzte; eta 33.001 eta 40.000 euro bitartean dabilentzako, aldiz, 50 euro jasoko dituzte. Dirulaguntza horiek, herriko komertzioetan gastatu beharko dituztela

azpimarratu dute udal ordezkariak. Agustín Valdivia alkateak eta Sozioekonomia batzordeburu Nuria Fernandezek eman dituzte egitasmoaren xehetasunak Copilasarten.

Lasarte-Orian erroldatuentzat

Lehen edo Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketako erdi mailako zikloak egiten ari diren ikasleei zuzenduta dago dirulaguntza lerroa, eta eskatzaileak Lasarte-Orian erroldatuta egon behar du; ez da derrigorrez herriko ikastetxeetako ikasle izan behar. Hala nabarmendu dute udal ordezkariak. Gaineratu dute laguntzak eskatzeko erosketak aurkeztu beharko dituztela eskatzaileek, hortaz horiek gordezeko deia ere egin dute. Argitu dute zein den dirulaguntzak

Ikastaro sorta oparoa

Ohiko ikastaroak

- Gorputza entzuten eta sentitzen ikasiz (doan)
- Kantua (doan)
- Gorputzaren autozainketa (doan)
- Egunerokotasunerako psikologia (doan)
- Yoga (erroldatuek, 38,25 euro; ez erroldatuek, 63,75 euro)
- Hipopresiboak (erroldatuek, 44,55 euro; ez erroldatuek, 74,25 euro)
- Eskulanak (erroldatuek, 51 euro; ez erroldatuek, 85 euro)

Emakumearentzako Jabetze Eskola

- Zugandik: Sormen artistiko eta terapeutiko argazki tailerra (doan)
- Dantza organikoa (doan)
- Emakume migratuen topagunea (doan)
- Indarkeriarik gabeko gune askeak (doan)
- Eskola Feminista (doan)
- Empoder-Arte (doan)
- Antzerkia (erroldatuek, 51 euro; ez erroldatuek, 85 euro)
- Biodantza. Dantzatu (ezazu) indarra (erroldatuek, 38,25 euro; ez erroldatuek, 63,75 euro).

tramite hori sarean egin dezakete izena emateko, honako helbide honetan: <https://www.lasarte-oria.eus>. Webgune horren barruan, *Udal tramiteak* ataleko *Gizarte Zerbitzuak* azpiatalean sartu behar dute, eta *Emakumearen Zentroa* aukeratu.

Ikastaro "arrakastatsuak"

Agerraldian izan diren udal ordezkariak azpimarratu dute "pozik" daudela Emakumearentzako Jabetze Eskolak herritarren artean izan duen harrerarekin. "Erabil-tzaile dezente animatu dira ho-

nezkerok, eta are gehiago izatea nahi dugu", adierazi du Igleziasek.

Ohiko ikastaroak zein jabetze eskolako kursoak hilaren 25ean hasiko dira eta otsailaren 2an bukatu. Euskaraz, gaztelaniaz edo elebitan emango dituzte saioak irakasleek.

KASTAROETAKO TOKIEN ZOKKETA HILAREN 18AN EGINGO DUTE, ZENTROAN BERTAN, 12:00ETAN



Copilasarte establezimenduan eman dituzte egitasmoaren xehetasunak. TXINTXARRI

barne hartzen duen erosi beharreko materiala: idazmahaiko materiala (arkatzak, boligrafoak, ezabagailuak, erregelak, koardernoak, eta abar); material ez suntsikorrak (karpetak, sailkagailuak, artxibagailuak, estu-

txeak, kalkulagailuak, eskolarako bizkarzorroa, etab.); eskolara joateko beharrezkoak diren jantziak (uniformea, betaurreko eta lentillak, heziketa fisikoa egiteko arropa eta oinetakoak); eta, eskulanetarako elementuak.



GurasoLeku egitasmoari buruzko formakuntza saio bat eginda ekin diote ikasturte berriari. TXINTXARRI

Martxan jarri dute GurasoLeku egitasmoa

Herriko ikastetxeetako irakasleak prest daude GurasoLeku egitasmoari buruz jasotakoa gurasoei transmititzeko. Proiektu horretan izena emateko eskuorriak banatuko dizkiete; parte hartu nahi dutenek hilaren 29a baino lehen bete eta entregatu behar dituzte

Txintxarri

Ikasturte berria eta helburu berbera: Lasarte-Oriako haurrak ahalik eta hiztun osatuenak izatea. Hori erdiesteko, GurasoLeku egitasmoak familiaren, eskolaren eta herriaren baliabideak eta gogoak konektatzen ditu, familia tipologia desberdinetara egokituta dauden hiru adar hauen bidez: GurasoLagun, GurasoTegi eta GurasoLandia.

GurasoLekuren asmo orokorra eta kontzeptu zehatzagoak errepasatu dituzte herriko ikastetxeetako irakasleek, Antonio Mercero gunean egindako formakuntza saio batean. Ikasgela batean baleude beza-

la korro bat egin eta ideiak elkartrukatu dituzte Lasarte-Oriako Udaleko Euskara sailburu Jon Antxordoki eta Ttakun Kultur Elkarte ordezkariekin. Bilera horretan, besteak beste, zehaztu dute aipatu egitasmoan izena emateko azken eguna hilaren 29a izango dela, ostiralarekin. Eskuorriak laster jasoko dituzte, kurtsio hasieran irakasleek gurasoekin egingo dituzten bilera orokorretan. Parte hartzeoko interesa dutenek orduan izango dute aukera informazioa jaso eta zalantzak argitzeko; Ttakuneko kideak ere bertaratu dira.

Oso errotuta dago egitasmoa gure herrian, Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak 2015-2016 ikasturtean jarri bazuen martxan, eragile ugariarekin elkarlanean. Gaur-gaurkoz, hauek osatzen dute lan mahaia: Sasoeta-Zumaburu eskola, Landaberri ikastola, Andrejoakinaenea haurreskola, Burunzpe Guraso Elkartea, Landaberri Guraso Elkartea, Munteri AEK euskaltegia, Ttakun Kultur Elkartea eta Euskara Zerbitzuak.

Lehen esan bezala, izena emateko epea hilaren 29an amaituko da. GurasoLagun, GurasoTegi eta GurasoLandia programak urrian jarriko dituzte martxan.



Herritar batzuk, Iturbe zapata dendaren eskaintzak aprobetxatzen. TXINTXARRI

Biltegiko produktuen eskaintza egitena ari dira merkatariak

Stock Azokak hartu ditu herriko zenbait komertzio atari; eskaintza bereziak egin dizkiete bezeroei, merkatariak

Txintxarri

Hilaren 7tik 9ra herriko merkatariak Stock Azoka egingo dute. Hamar dendek parte hartuko dute ekimenean, eta biltegiko produktuak eskainiko dizkiete lasarte-riarrei. Hauek izango dira komertzio partehartzaleak: Mabel moda, Imagine jantzi denda, Alba moda, Iturbe zapata denda, Leder oinetakoak, Urruzola mertzeria, Olmi mertzeria, Deco 75 textil hogar, Arregui elektrizitatea eta Noaoa bidaiak.

Merkatariaren elkarteko kideek azaldu dute kanpaina honen helburua honakoa dela; denboraldi berriari hasiera eman aurretik, biltegian geratutako produktuak salgai jartzea. Aterpeko kideekin batera, Agustin Valdivia alkatea eta Soziokonimia zinegotzi Nuria Fernandez izan dira aurkezpen agerraldian, eta horiek, herritarrei

dei egin diete egitasmoan parte har dezaten. Herriko merkataritzak babestearen garrantzia azpimarratzeaz gain, horien lana nabarmendu dute.

Lehen balorazioa

Urruzola mertzeriako eta merkatariaren elkarteko kide Lurdes Urruzolarekin egoteko aukera izan du TXINTXARRI-k, eta egitasmoaren lehen egunari buruz galdetuta, honako hau erantzun du: "Uste baino jende gutxiago dabil". Azpimarratu du inoiz baino publizitate gehiago egin izanagatik, jarduerak bestelako harrera izango zuela aurreikusuten zuela. Halere, oraindik ere gaurko eguna eta biharko goiza geratzen direnez, ikusi beharko da egitasmoak zer-nolako harreara izango duen, eta azken balorazioa bestelakoa den edo ez.

Familiaren hizkuntza-politika

IZEN EMATEA ZABALIK
ESKUORRIA HERRIKO IKASTETXEETAN

0, 1 eta 2 urteko haurren gurasoentzako eskaintza

2, 3, 4 eta 5 urteko haurren gurasoentzako eskaintza

GurasoLagun

GurasoLandia

GurasoTegi

Zozheta!

Ttakun Kultur Elkarte bazkide zara?

BENE KANTAK

HERNANIKO KIROLDEGIAN
IRAILAK 17, 17:30ean

BI SARRERA BIKOITZI!

Eman izena irailaren 13a arte (barne)

harpidetza@ttakun.eus | 943-37 14 48 | 646 82 44 66 (whatsapp)

Udarako festa giroari jarraipena emango diote

Ama Guadalupekoaren omenezko jaiak ospatzen ari da izen bera duen Extremadura Etxea, Sasoeta auzoan. Antolatzaileek azpimarratu dutenez, egitarau "oparoa" prestatu dute adin tarte guztietako herritarrentzat. Jardueretan parte hartzera animatu dituzte

Txintxarri

Irail hasiera da, udako oporretan biziak alde batera utzi eta errutinara itzultzeko garaia herritar askorentzat. Ikasturte hasiera samurtze aldera, egitarau oparoa prestatu dute Virgen de Guadalupe Extremadura Etxeako kideek, probintzia horretako zaindariaren omenezko jaiak ospatzeko. Atzo hasi ziren festak, hilak 7, eta etzira arte luzatuko. Bitartean, adin tarte guztietako herritarrentzako ekimen ugari aurrera eramaten ari dira Sasoeta auzoko Adarra kalean (egoitza bertan dute), Jaizkibel plazan eta inguruetan.

Elkarteko lehendakari Iñigo Garcia, lehendakariorde David Mateos, jaien antolakuntza batzordeko kide Ainara Herrero eta Lasarte-Oriako Udaleko Kultura sailburu Anne Ugarteburuk xehetu dute programa. Azken horrek nabarmendu duenez, egitaraua "ekimen interesgarri zosita" dago. "Jarduerak arreta deitu didate, oso interesgarriak iruditzen zaizkidalako; adibidez, Extremadurako jantzi tradizionalen desfilea". Ekitaldi hori gaur egingo dute, Adarra kalean, 19:15ean. Egitarau osoa aldizkari honen 15. orrian kontsulta dezakezue, *Agenda* atalean.



Ezker-eskuin: Mateos, Herrero, Ugarteburu eta Garcia. TXINTXARRI

Garciak hartu du hitza gero, esateko "adin tarte guztietako lasarteoriatarrek" parte har dezaketela antolatu dituzten jardueretan. Beldurrik ez izan eta Sasoetara bertaratuz gona bidatu dute.

90 bazkide

Duela 45 urte inauguratu zuten Virgen de Guadalupe Extremadura Etxea, 1978an. Probintziaren zaindariaren festez gain, beste zenbait jarduera aurrera eramaten dituzte Lasarte-Orian, esate baterako, sanpedroetako danbolin

jotzaileen emanaldia eta ogi mami dastaketa. Herriaren bizitza aktiboaren parte garrantzitsu dira, beraz.

Gaur-gaurkoz 90 bazkide dituzte, eta, zuzendaritza batzordeko kideek jakinarazi dutenez, pertsona ugari izena eman dute itxarrote zerrendan, plaza horietako bat noiz libratuko zain.

Elkartean 90 dira bazkide, eta Sasoetan gehiago izango dira ziur asko egun hauetan festetara bertaratuko direnak. "Beso zabalik" hartuko dituzte horiek guztiak antolatzaileek.



NEURE KABUZ
MAITANE REBE

Ez da desira kontua, botere kontua baizik

Idazten jarri baino lehen mila buelta ematen dizkiot zeren inguruan hausnartuko dudan erabakiz. Eta gaurkoan, zalantza eta amorrutaz beterik aukeratu dut eztabaidagaia. Luis Rubiales, Jorge Vilda, Luis De La Fuente... eta zenbat gehiago? Azken hilabeteetan hain ezagunak egin diren "macho alfa" hauen aurrean, egoera salatu duten emakumeak agerian utzi dute oraindik bide luzea dugula aurretik.

Emakumeok txiki-txikitatit garatzen dugu musu ematen saiatzen direnean baimenik edo barkamenik eskatzen ez duten eta baztertu egiten ditugun gizonen nahi gabeko ahoak saihesteko dugun "beharra". Gure erresistentzia, ia kasu gehienetan, lortu nahi duten helburu horren oztopo bizigarri bihurtzen da: musu bat lapurtu, ipurdi bat ukitu, titi bat igurtzi.

Ez da desira kontua, botere kontua baizik. Eta hau argi geratu da Luis Rubialesen hizketaren osteko txaloeekin. Botereaz mintzatean ez naiz erakunde, enpresa edo instituzio bateko buru izateak ematen dizun botereaz ari, erasotzailearen inguruko gizonen konplizitateak eta isiltasunak ematen botereaz baizik.

Hamarkada luzez lortu ditugun aurrerapenek buru egin behar diote oraindik ere defentsa egitura bati. Borroka feminista neketsu horretan, artean, beren "eskubideak" haserrez eta harrotasunez defendatzen dituzten gizontxo gehiegi daude.

"Macho alfa" sentitu zaitezke zure barrabilerik helduz, emakume bati baimenik gabe musu emanez, emakume bat erasotuz, baina ez horrenbeste erantzukizunak zure gain hartzeko. Askotan gertatzen dira erasoak, ikusten ez diren delituak, eta oraingoan telebistaz miloika ikusleren aurrean delitu bat jazo dela argi ikusi arren, emakumearen hitza zalantza jartzen da berritoren. Hori nahikoa izango ez balitz, erasotzaile honek, ondorioak onartu beharrean, konspirazioa eta feminismo faltsua salatu ditu. Maskulinitatearen ikuspegia, paketea sutsuki ukitzean oinarritua, baina egiaren aurrean eusteko gai ez dena. Maskulinitate faltsua.

Indarkeriak legez onartzea lortu arren, gizonen "estrategia" feminismoak emakumeak indartu beharrean, biktimizatzen dituela sinestea da. Ikusiak eta ez ikusiak diren milaka delitu, milaka eraso... Gaurkoan "macho alfa" hauen kasuaz hitz egin dudana arren, beste hainbeste idatz nezake gai honen inguruan. Baina honen guztiaren gainetik emakumeen elkartasuna, beraien arteko babesa eta erresistentzia azpimarratu nahi ditut. Elkarren arteko sarea ezinbestekoa izan da eta ezinbestekoa izango da.

Abuztuaren 31ko gertaerak oroitzeko jardueretan izan dira

LOZET elkarteko zenbait kide Donostiara joan dira, 1813ko abuztuaren 31ren bueltako ekimenetan parte hartzera

Txintxarri

LOZET elkarteko zenbait kide Donostian izan dira berriki, 1813ko abuztuaren 31ko sutea eta sarraskia oroitzeko ekimenetan parte hartzen, goizetik iluntzera arte. Egun berezi eta

hunkigarria izan ohi da hori donostiarrentzat; aurten 210 urte bete dira armada portugaldar-inglesak hiria hartu eta sutea eta sarraskia itzelak eragin zituenetik; hiritarrek eta soldadu frantziarrek borroka egin arren,

irailaren 8an errenditu ziren. Gertakari horiek gogoratze aldera, goizetik iluntzera arte aurrera eramaten dituzte hainbat jarduera Gipuzkoako hiriburuan, eta horietan parte hartu dute LOZET elkarteko zenbait kidek, beste hainbat eragile eta dantborrada taldeekin batera.

Bihar eta etzi, hilaren 9an eta 10ean, Virgen de Guadalupe Extremadura Etxeak antolatutako jaietan parte hartuko dute erraldoi, buruhandi eta zezenzuzkoarekin.



LOZET elkarteko kideak, soldaduz jantzita. ISAAC FARRERICO

Emazo zu buelta bat zure munduari euskararekin 2023-24



ONDO iBiLi!

BEKA
matrikularen
arte %85a

AGENTZIAK

Bidaia ezazu zuzenean herriko agentzia batekin, ziurtasun osoz.

ABIAPUNTUA

Zu zeu eta zure errealitate linguistikoa.

IBILBIDEAK

- Aurrez aurreko ikastaroak, hainbat iraupen eta intentsitatetakoak.
 - Maila guztiak.
 - Orduzabala.
 - Txandaka aritzeko aukera...
- On-line ikastaroak, autoikaskuntza...

Udaleko euskaltegia

- Helbidea: Bekokale bidea 1
- Telefonoa: 943-36 16 21
- e-maila: euskaltegia@lasarte-oria.eus
- Matrikulatzeko epea: irailaren 1etik 20ra

Munteri-AEK euskaltegia

- Helbidea: Geltoki kalea 17 - behea
- Telefonoa: 607 62 52 33
- e-maila: lasarte@eak.eus
- Matrikulatzeko epea: irailaren 1etik 30era

Esperientzia orijinala bermatuta.



Bidaia
asegurua
barne

GELDIALDIAK

- Haurrarekin hitz egitea...
- Gauza laburrak idaztea...
- Titulu bat eskuratzea: B1, B2, C1, C2
- Lagunekin, lankideekin, familiakoekin euskaraz aritzea...
- Euskarazko kultura, esperientziak, jarduerak hobeto ulertzea, parte hartzea, parte izatea...

HELMUGA

Zeuk aukeratzen duzuna.

ONDO iBiLi!

Abia zaitez amesten duzun txokorantz

BALDINTZAK

- Lasarte-Orian erroldatua egotea, ikastaroa hasi baino egun bat lehenagotik ikastaroa amaitu bitartean.
- 16 urte beteak izatea ikastaroa amaitzen den egunean.
- Ikastaro hauetakoren bat egin izatea:
 - 1- Euskaltegiko ikasturtean zeharreko ikastaroa, gutxienez 80 ordukoa.
 - 2- Barnetegia, gutxienez hilabete segidan baldin bada.
 - 3- Udako ikastaroak (ikasturtean zehar aurreko ikastaro-mota horietako bat egin duten ikasleen kasuan bakarrik)
- Gutxienez % 85eko asistentzia eta gutxienezko aprobetxamendua gainditua.


Dagokion ikastaroa bukatu eta hurrengo 15 egunen barruan aurkeztu beharko du interesatuak eskaera.

Informazio gehiago

Udaleko euskarako zerbitzuan:



- Helbidea: Kale Nagusia 22
- Telefonoa: 943-37 61 84
- e-maila: euskara@lasarte-oria.eus





Mezu gordea

Hizki-marrazki alfabetoa erabiliz, eman irudiño bakoitzari dagokion hizkia. Esaera zahar bat agertuko zaizu.




Handienetik txikienera



Ordena itzazu eltzeitsu hauek handienetik txikienera, 1etik 8ra zenbakituz.


Ezetz asma!



Azpiko prakatan harrapatu dugun txerri dotore hau arra da. Txerri arrak izendatzeko hitz zehatzak ditu euskarak, ba al zenekien? Honoko zazpi hauen artetik hiruk, esaterako, horixe bera esan nahi dute. Ea asmatzen duzun zeintzuk diren.


- ORDOTSA
- ARLOTEA
- KUIA
- AKETZA
- KOSKABILOA
- APOTEA
- MIZPIRA

Hiru txerri txoak




	D	A	E	K	
		E	A		
E				D	A
K	A				R
		K	R		
	E	R	D	U	

Zure eguneroko hizkeran, zer dira bi lagunok, txerriak edo urdeak? Sudoku honetan, URDEAK dira, eta hitz horren parte diren sei letrak beharko ditugu zuriuneak osatzeko (U, R, D, E A eta K). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.




SUDOKUA





NON demontre...

Lagundu txerrikume honi gogoan duen adiskidea aurkitzen. Eroen gisan atera dira denak kortatik, eta orain bi lagunek ez dute elkar aurkitzen.




Zein da txerri malabaristaren itzal zuzena? Bide batez, margotu ezazu



Itzalak

Ispiluan baleude bezala ikusten dituzun bi irudiok berdinak ematen dute baina ez da hala. Aldea dago batetik bestera. Guztira 19 ezberdintasun aurkitu behar dituzu.



Erredakzioa ESKUALDEA

Uda amaitzearekin batera, ikasurte berriaren jardunari ekin diote berriro ere askok. Maletak hustu eta eguneroko martxari eusteko unea ailegatu zaio bati baino gehiagori, iraileko lehen egunetan. Arduren, zereginen eta erantzukizunen artean, bada, ordea, motibaziorik. Hori horrela, urtero-urtero, euskararen trebatzeko konpromisoa hartzen dutezenbait herritarrek, AEKren eta udal euskaltegien laguntzarekin, aurrera egiteko grinez.

Askotariko helburuak medio egiten dute bat herritarrek euskara ikasteko bidean. Hala, premia orori, dagokion doinu eta neurrian, erantzuteko prest dira eskualdeko euskaltegiak: maila eta behar guztietara egokitutako eskaintza daukate aukeran.

Euskara ikasteko arrazoi adina aukera bermatzen ditu Buruntzaldeak. Guztira, zortzi euskaltegi biltzen ditu eskualdeak; bana, Andoainen, Urnietan eta Usurbilen; bina, berriz, Hernanin eta Lasarte-Orian. Goiz, eguerdi eta arratsalde, astelehenetik ostiralera bitarte, aukera sorta zabala dute eskuen artean euskararen trebatzeko gogoan duten herritarrek, aurrez aurreko ikastaroaren bidez, baita autoikaskuntza hautatuta ere.

Hori gutxi balitz bezala, diruz laguntzen dute eskualdeko udalek ikasketa prozesua: tokian-tokian baldintzak eta ezaugarriak aldakorak izan arren, udalerriz gutziek bermatzen dute gutxieneko babes ekonomikoa. Halaber, HABEk ere diru-laguntzak ematen ditu, baldin eta erakundeak ezarritako maila edo baliokidea eskuratzen badu ikasleak.



Buruntzaldeko euskaltegiak kideak, Astigarragan ateratako familia argazkian. AIURRI

Euskara ikasi, mihia zorrozteko

Beste urte batez, kalitateko hezkuntza bermatu nahi diete eskualdeko zortzi euskaltegiek euskara ikasteko motibazioa agertzen duten herritarrei. Maila guztiei begirako eskaintza malgua dute

Ateak irekita

Prest da Hernaniko Udal Euskaltegia 2023-24 ikasurteari begira euskararen trebatzeko gogoan duten herritarrek jasotzeko. Bada, bertako irakasle da Izaskun Arrieta eta elkarren artean antzekotasunik ez duten bi mailatan egiten du lan: batetik, hasi berri direnekin, alegia, A1 mailakoekin, eta, bestetik, 17 urteko nerabeekin, C1aren prestaketan. Profil

anitzeko jendea biltzen da euskaltegian; hortaz, bakoitzaren neurria egokitutako estrategiak erabiltzen dituzte irakasleek hizkuntza erakusteko. Ildo beretik, gustuko du kontrastea Arrietak, maila bakoitzak bere exijentziak eta pazientziak eskatzen dituelako. Dena dela, maiz, hizkuntza bat ikasteak dakartzan buruhausteak buruhauste, irakaslearen hitzetan, "ederra izaten da ikas-

turte amaieran emaitzak ikustea, aurrerapausoak eman dituztela antzematea". Askorentzat egindako lanaren aitortza da titulua eskuratzea, baina ikasketa prozesuan ere begirada ipini du irakasleak: "Jende asko euskaldundu da gurean". Eguneroko ordea, makina bat erronkarekin egiten dute topo irakasleek: "Atzean gelditu den hori nola motibatuz asmatzea ere badugu xede".

Azken hiru hamarkadei erreparatuta, euskarak prestigioa galdu duelakoan da Arrieta, nerabeen artean, besteak beste. Era berean, irakaslearen esanetan, "behe urratsetan", Euskal Herria zer den ez dakitela gerturatzen dira asko euskaltegiara, izena ematera. Hori horrela, hutsune horri erantzute aldera, hizkuntza bera ikastea ez ezik, euskal komunitatera ere atea irekitzen dizkie euskaltegiak ikasleei, beren egunerokoan, erreferentziak eta euskaraz jarduteko espazioak izan ditzaten, bai ikasgelan, bai bertatik kanpo egiten dituzten jardueretan.

Taldean ikasteko aukera

Motibazioa soberan dauka Rocio Arias Andoainen bizi den urnietarrak urtero-urtero herriko AEK euskaltegian izena emateko. Ezer gutxi zekien euskaraz lehen, ikasketak guztiak gaztelaniaz egin baititu. Horrela, hutsetik hasi zen hizkuntzan trebatzen eta sei urte daramatza buru-belarri bertan, aurrez aurreko klaseak jasotzen. Egun B2-B1 mailan dago (entzumena/irakurmena-idazmena/mintzamina). Titulurik ez duela behar dio, eta, horrela, haren hitzetan, ez dio gehiegizko presiorik jartzen bere buruari: "Oso gustuko dut hizkuntza taldean ikastea, eta harreman polita dugu irakaslearekin. Gelakide asko ez nituen lehenago ezagutzen, gainera". Elkarriz laguntzen diotela azaldu du ikasleak, eta klaseak "dinamikoak, arinak eta erosoak" iruditzen zaizkio: "Jakin-mina izanez gero, proba dezala jendeak". Gauzak horrela, irakurle, eskuen artean duzu ikasurteari begirako erronka berria: euskaltegian izena eman eta euskararen trebatzea, mihia zorroztea.

Euskara ikasteko dirulaguntzak

Andoain

Baldintzak: 16 urtetik gorakoa izatea, Andoainen erroldatuta egotea (gutxienez, sei hilabete) eta %85eko asistentzia. Dirulaguntzak: ohikoa matrikularen %90, eta %100 honako kolektiboentzat: diru sarrera txikiak dituztenak (ikus baldintzak), familia ugarien kideak, Andoaingo merkataritza eta ostalaritzako langile andoaindarra, A1 maila egin duena...

Astigarraga

Baldintzak: 16 urtetik gorakoa izatea, Astigarragan erroldatuta egotea eta %85eko asistentzia. Dirulaguntzak: matrikularen %100, oinarritzko errenta jasotzen dutenek, udalaren larrialdi laguntza jasotzen dutenek, 0-12 urte bitarteko haurren gurasoek, familia ugariako kideak, unibertsitateko edo lanbide heziketako ikasleak, merkatariek, langabetuek eta azken hiru urteetan hiru maila gaintu dituztenek. Gainerakoek, matrikularen %75.

Hernani

Baldintzak: Hernanin erroldatuta egotea, eta % 85eko asistentzia. Dirulaguntzak: asteen hamar ordutik beherako ikastaroak: langabetuei, ikasleei, erretiratuei edo desgaitasuna duten pertsonen matrikularen %90 eta gainerakoei matrikularen %70. Asteen hamar ordutik gorako ikastaroak: langabetuei, ikasleei, erretiratuei edo desgaitasuna duten pertsonen matrikularen %100. Gainerakoei matrikularen %75.

Lasarte-Oria

Baldintzak: 16 urtetik gorakoa izatea, Lasarte-Orian erroldatuta egotea, % 85eko

asistentzia. Dirulaguntzak: matrikularen %85a gehienez ere.

Urnietan

Baldintzak: Urnietan erroldatuta egotea, %80ko asistentzia. Dirulaguntzak: matrikularen % 100 gehienez ere langabetuentzat, eta % 85, gehienez ere, lanean ari direnentzat.

Usurbil

Baldintzak: 16 urtetik gorakoa izatea, Usurbilen erroldatuta egotea, %80ko asistentzia. Laguntzak: matrikula osoa. *Xehetasun gehiago (eskatzeko epeak, dirulaguntza motak...) udal bakoitzaren web orrialdean.

Buruntzaldeko udalek %70 - %100 artean diruz laguntzen dute euskara ikastea!

Usurbil



Andoain



Lasarte-Oria



Urnieta



Hernani



Astigarraga



**Eus
ka
ra
ikasiz**

Erabiliz ikasi,
ikasiz erabili



Buruntzaldea
euskaraz

Jo gogoko duzun euskaltegia eta izena eman!

ANDOAIN

Andoaingo AEK
Plazaola, 2
943-59 17 04
andoain@aek.eus

LASARTE-ORIA

Munteri AEK Euskaltegia
Geltoki kalea, 17 behea
607 62 52 33
lasarte@aek.eus

HERNANI

Hernaniko AEK
Larramendi, 11
943-55 78 01 - 607 59 28 64
Zilegi eskola: 663 04 33 14
hernani@aek.eus

USURBIL

Etumeta AEK Euskaltegia
Kale Nagusia, 43 behea
607 60 93 79
usurbil@aek.eus

ASTIGARRAGA

Astigarragako AEK
Kultur etxea. Nagusia, 48
607 61 06 87
astigarraga@aek.eus

Lasarte-Oriako Udal Euskaltegia

Bekokale bidea, 1
(anbulatorioaren gainean)
943-36 16 21
euskaltegia@lasarte-oria.eus

Hernaniko Udal Euskaltegia

Karobieta, 63
(anbulatorio zaharra)
943-33 18 96
euskaltegi@hernani.eus

URNIETA

Urnietako AEK
San Joan, 42 (Elkarteen etxea)
662 33 87 47
urnieta@aek.eus

Donostia Arraun Lagunak, Ligako garaile

2023ko arraun denboraldia bukatzean da. Kontxako banderako bigarren jardunaldiaren faltan, liga guztiak amaitu dira. Euskotren Ligan eta KAE2 Ligan lehian izan diren herritarrekin solasaldia izan dugu euren esperientzia jasotzeko

Txintxarri

Arraun Ligak abuztuan amaitu ziren. Aurreko urteetan antzera, Aiora Belartietia (Donostia Arraun Lagunak) eta Intza Fernandez (Hondarribia Bertako igogailuak) izan dira Euskotren Ligan lehian eta Gaizka Ormazabal, aldiz, Hibaikako eskifaian, KAE 2 Ligan.

Belartietak eta Lugañeneko eskifaia Euskotren Ligako garaikurra altxa dute. Ekainetik abuztura arteko jardunal-

dietan egonkor ibili da Donostia Arraun Lagunak. Hasieratik lidergoari eutsi eta Orio zein Donostiarra traineruen kolpeei aurre egin behar izan die. Baina tinko mantendu eta Zarautzeko ikurriña eskuratuz amaiera bikaina eman dio lehiaketari. 2021 urteko balentria dute orain buruan eta horretarako, Kontxako bandera irabazi behar ko dute.

Bosgarren postuan amaitu du Liga Hondarribia Bertako

Igogailuak ontziak. Intza Fernandez herritarraren ontzia Ohorezko txandatik gertu izan da liga osoan zehar, baina behin bakarrik eman ahal izan du pausoa Santurtzin.

Igoera lehiatzeko asmoarekin Hibaikak eta Gaizka Ormazabal herritarrak ilusioz ekin zion KAE 2 Ligari. Emaitzak ez ditu lagun izan Errenteriko eskifaia, ordea eta bosgarren postuarekin konformatu behar izan dute.

Erabakitzeke dago bandera

Espero zitekeena baino are zirrargarriagoa izango da hilaren 10eko estropada, Kontxako Banderako bigarrena, lau traineru sailkatu baitira bost segundo baino gutxiagoko tartean Ohorezko txandarako: ezustekoa eman duen Tolosaldea, Donostia Arraun Lagunak, Donostiarra eta Orio. Bigarren txandan arraun egingo dute Hibaika, Hondarribia, Zumaia eta Kaikuk. Batean zein bestean ariko dira Aiora Belartietia (Donostia Arraun Lagunak) eta Intza Fernandez (Hondarribia).

Lehen txandan aritu ziren Orio, Hibaika, Zumaia eta Kaiku. Hasiera-hasieratik erakutsi zuten mirotzek gainerakoak baino indartsuagoak direla, eta ahalik eta denbora onena egiteko erlojupeko moduko bati ekin zioten, berehala hartu baitzuten beste hiru ontziekiko tarte esanguratsua. Gauzak horrela, 10.42,30eko denbora egin zuten helmugan.

Bigarrenean, berriz, Donostia Arraun Lagunak, Donostiarra, Hondarribia eta Tolosaldea jardun ziren. Dtxean aritzeagatik motibatuta, Bantxa izan zen bizkorrena joanaldian, Doostia Arraun Lagunak eta Tolosaldeari hiru segundo aterata. Hondarribiak ezin izan zuen beste hiru eskifaian erritmoa jarraitu eta hamabi segundora egin zuen zabioga. Donostiarrek zertxobait mantsotu zuen erritmoa eta hori baliatu zuten atzetik segika zituen bi traineruek. Helmugan, eguneko ezusteko handiena: Tolosaldeak egin zuen denbora onena, 10.37,64, Lugañeneko baino hemezortzi ehuneko bizkorrago (lehenengoaren eta bigarrenaren arteko inoizko tarte estuena da hori Kontxako Banderaren historian). Donostiarra eta Orio ere gertu izan ziren; bi eta bost segundora, hurrenez hurren.

"Liga ostean, Kontxako bandera gosez gara"

AIORA BELARTIETA DONOSTIA ARRAUN LAGUNAK-EKO ARRAUNLARIA

Herritarrak Euskotren Liga eskuratu du bigarrenez Donostia Arraun Lagunakeko tostan. Duela bi urteren antzera, Kontxako bandera irabaztea ere helburu dute

Nerea Eizagirre

Aiora Belartietia (Lasarte-Oria, 2002) Lugañeneko brankan lehian da aurten. Euskotren Liga osoan erregularrena izan da Donostiako ontzia eta horrek mezeitako saria izan du: liga irabazi dute.

Pozik al zaudete egindako lanarekin eta emaitzekin?

Bai, oso pozik gaude. Urte osoan zehar landu duguna erakusteko aukera izan degulako. Ilusio handia egin digu hain lehiakorra izan den liga hau irabazteak.

Postu berri batean izan zara lehian, brankan. Zer moduz moldatu zara? Ziabogetan erantzukizun handia izan da?

Bai, aurten postu horretan joan naiz estropada guztietan. Aurretik ere bertan ibilitakoa naiz, baina aurten konfiantza osoa



Belartietia (bigarren eskuinetik), Euskotren Ligako garaikurra jasotzen. E. LIGA/ A. ARRIZABALAGA

hartu dut. Hala ere, Lekeition itsasoa oso mugitua eta olatu handiak zeuden, beraz zabioga egiteko posizioa heltzera kostatu zitzaidan. Momentuan oso gaizki pasa nuen.

Denboraldiaurrean Orio eta Donostiarrekin borroka handia izan zenuen eta ligan ere horrela izan da. Nola ikusi dituzue aurkariak?

Indar handia duten bi traineru direla ikusi dugu denboraldian

zehar; garaipenak banatuak izan dira gure artean. Tolosaldea ere oso ondo ibili da eta hainbat estropadetan bandera lortzeko borrokan egon da. Kasta eta ilusio handia dutela erakutsi dute.

Aurten gainera lehenengoz zortzi traineru egon zarete ligan. Lehiakortasuna handiagoa izan da?

Lehia egon da, garaia zen emakumeen lehen ligan zortzi traineru egoteko. Borroka nabarmena lehen lauen artean egon arren, gerora begira emakumeen liga sendotzeko eta lehia estuagoa izateko bidea ireki zaigu. Hala ere, oraindik asko dago egiteko eta borrokatzeko.

Liga garaipenarekin hasi eta amaitu zenuen. Lidergoan mantentzeko borrokatu behar izan duzue...

Bai, horrela da. Denboraldi osoan zehar liderrak izan gara. Beraz, hasiera batetik hori lortuta, mantentzea izan da gure helburua astebururo. Pixkanaka-pixkanaka puntuak lortzen joan gara eta erakutsi dugun erregularitasunarengatik puntuen diferentzia

handiagoa izan da. Burua hotz mantentzeak asko lagundu digu bide honetan.

Zein izan da banderarik bereziena? Zarauzkoa agian?

Bai, Zarauzko ikurrina izan da bereziena niretzat. Kosta egiten da hura irabaztea bi jaurdunaldietara eta azken asteburua izaten delako. Aurten gurea zela esan genuen hasieratik eta konfiantza osoarekin atera ginen. Horrez gain, A Coruñako bandera irabazteak ere ilusio handia egin zidan azken urte hauetan zaila egiten zitzaigulako bertan irabaztea.

Ligako helburua bete duzue eta denboraldia biribiltzeko ederra izango litzateke Kontxako Banderak irabaztea, ezta? Lehen jardunaldian Tolosaldeak eman du ezustekoa.

Bai, orain arte sekulako lana egin dugu baina Kontxako Banderak gosez gara. Denboraldi osoan zehar Tolosaldeak horrelako ezustekoak eman ditu eta bagenekien gai izango zirela. Lau segundotan lau traineru gaude eta horrek zeresan handia du emakumezkoen lehian. Beraz, argi dago edozeinek irabazteko aukera izango duela. Gu dena ematera aterako gara, irabazteko. Gauzak ondo eta lasaitasun puntu batekin egiten baditugu badakigu irabazteko aukera handiak ditugula.

EUSKOTREN LIGA

- Postua: 1º
- Puntuak: 95
- Banderak: 5
- Postu onena: 1º
- Postu txarra: 3º

"Bigarren txandako ontziak gertu egon dira"

INTZA FERNANDEZ HONDARRIBIA BERTAKO IGOGAILUAK-EKO ARRAUNLARIA
Euskotren Ligako bosgarren postua eskuratu du Ama Guadalupeko ontziak. Ohorezko txandako traineruetatik gertu ibili da eta Santurtzin txanda horretan lehiatu da

Nerea Eiizagirre

Intza Fernandez (Lasarte-Oria, 1996) Hondarribia Bertako Igo-gailuak ontziko eskifaian lehiatu da. Euskotren Ligako ohorezko txandako ontzietik gertu ibili arren, bosgarren sailkatu dira berdeak. Kontxako Banderarako ere sailkatu dira.

Euskotren Liga bosgarren postuan amaitu eta jaitsiera saihestu duzue. Helburua bete al duzue?

Bai, pozik gaude. Hasiera batean hori zen gure helburua: bosgarren postua lortu eta laugarrena lehiazten saiatzea. Eta hori bete dugu. Hala ere, pertsonalki, ez dugu denboraldi onegia izan eta atzera pauso bat egin dugula uste



Hondarribia, denboraldiko jardunaldi batean lehian. EUSKOTREN LIGA/A. ARRIZABALAGA

du. Izan ere, orain arte lau eskifaia ziren Euskotren Ligan. **Aipatu legez, aurten lehenengoz zortzi traineru egon zarete ligan. Lehiakortasuna handiagoa izan da?**

Zortzi traineru egoteak aurten lasaitasun gehiago eman digu; laugarren postuaren ordeztarrena saihestu behar zelako. Baina ez zait iruditzen lehiakortasun handiagorik zegoenik. Galiziako traineruek ez dute maila handiegirik eman. Beraz, ez zegoen aukera handiegirik postuen artean mugitzeko.

Ligan zehar, Cabo da Cruz, Tiran eta Hibaikarekin lehiatu zarete lehen txandan. Zein zen zuen arerio zuzena?

Egia esan, bigarren txandako traineruetatik gertuago egon gara uste dut; bukaeran, Hibaika hurbildu zitzaigun. Baina denboraldi osoan gora begira egon gara.

EUSKOTREN LIGA

- Postua: 5°
- Puntuak: 54
- Banderak: 0
- Postu onena: 4°
- Postu txarrena: 6°

Eta horrela, Ohorezko txandan egotea lortu zenuten Santurtzin. Horrek indarrak eman al dizkizue?

Bai, gure helburuetako bat hor sartzeari zela. Gure estropadarik onena izan zen. Baina ez gaude guztiz pozik; estropada askotan laugarren postutik ehunetokara geratu gara eta horrek amorrua ematen digu.

Estropada eremu berrietan egin duzue arraun aurten. Horrek ere lehia zailtzen du?

Bai, aurten Boiro eta Moaña (Galizia) izan ditugu. Ez genuen eremua ezagutzen eta esperientzia falta horrek beti zailtzen du.

Gaur egunera etorrita, Kontxako Banderako lehen jardunaldian Tolosaldeak eman du ezustekoa. Zer irakurketa egiten duzue lehen jardunaldi horretakoa? Eta bigarrenari begira, zein da aurreikuspena?

Tolosak aurten behin baino gehiagotan eman du maila ona eta irabaztetik gertu ibili da. Hala ere, lau traineruak daude oso gertu. Tolosak berriro lan ona egiten badu eraman dezake bandera, baina oso zaila dago. Ezin dut aurreikusi zer pasako den, baina, ezustekoz irabaziko balu, poztuko nintzateke.

"Helburua posible zela pentsatu genuen"

GAIZKA ORMAZABAL HIBAIIKAKO ARRAUNLARIA

KAE 2 Ligan lehiatu da Gaizka Ormazabal herritarra. Maila igoera buruan izan arren, denboraldi gorabeheratsua izan dute eta bosgarren postuan amaitu dute lehia

Nerea Eizagirre

Denboraldi berezia izanda aurtengoa Gaizka Ormazabalentzat (Lasarte-Oria, 1992). Lau urtez – hiru urte Hibaikan eta bat Sanpedrotarran – KAE 2 ligan lehian egon ostean, arrauna utziko du. Aurten Ligako bosgarren postuan sailkatu da kide izan duen Hibaika trainerua. Denboraldia amaitzeko Kontxako sailkapenean parte hartu zuen Errenteriako ontziak; ez zuen txartela eskuratu.

Denboraldi hasiko helburua bete duzue? Gorago egotea espero zenuten?

Neguan izandako estropaden emaitza ikusita taldearen hel-



Hibaikako trainerua, Mutrikun lehiatzen. ©DANINOVASPHOTO

burua KAE 1 mailako igoerako postu bat lortzea zen. Azkenean bosgarren izan garenez, ez dugu urteko helburua bete.

Orio izan da nagusi zuen mailan. Donostiarra eta Portugalete izan dira jarraian. Bi horiek izan dira zuen aurkari zuzenak?

Orio oso nagusi izan da hasieratik bukaerara eta merezitako igoera lortu dute KAE 1 ligan. Portugaleteko banderaren ostean, Portugalete eta Donostiarra ikaragarri egin zuten gora eta gu Astillerorekin batera atzera.

Liga hasieran, Mutrikun eta Donostian hirugarren postua eskuratu zenuten. Aurreikuspen onak zenituzten orduan?

Bai. Ligako lehenengo bi estropadetan hirugarren postua lortu eta jarritako helburu hori posible zela pentsatu genuen.

KAE 2 LIGA

- Postua: 5°
- Puntuak: 37
- Banderak: 0
- Postu onena: 3°
- Postu txarrena: 6°

Orion eta Portugaleten ez genuen emaitza onik izan, ordea eta sailkapenean atzera joan ginen.

Bi estropada horietan bosgarren izan zineten eta Ondarroan seigarren. Horrek eragin handia izan du azken emaitzan?

Bai, hori da. Txanden arteko baldintzak (olatuak, mareak, eguraldia...) zertxobait aldatu ziren jardunaldi batzuetan eta horrek ere eragina izan zuela pentsatzen dut.

Kontxako Banderako sailkapen proban parte hartu zenuten eta ezin izan zenuten aurrera egin. Espero zenuten?

Gure kasuan egun berezi honez gozatzea eta ahalik eta lan txukunena egitea dugu helburu; inongo presiorik gabe.

Aurtengoa azken denboraldia izan da zuretzat. Nola bizi izan duzu?

Bai, berezia izan da. Neguan taldeak oso ondo egin zuen lan eta emaitzak onak izan ziren. Denboraldia aurrera joan ahala eta emaitzak esperotakoak ez izatean frustrazio puntu bat izan dut. Hala ere, urtean zehar momentu askotan gozatzeko aukera izan dut.

Zudaire, Munduko txapelketako podiumean

Buruntzaldea IKTko Nahia Zudairek zilarra eta brontzea jantzi ditu abuztu hasieran Manchester-en jokaturako Igeriketa Egokitutako Munduko txapelketan. Pariseko Paralinpiar Jokoetan lehiatzeko bederatziko postu eskuratu ditu Espainiako Selekzioak

Txintxarri

Abuztu hasieran Igeriketa Egokitutako Munduko Txapelketa lehiatu zuten Manchester, Ingalaterran. Buruntzaldea IKTko Nahia Zudairek Espainiako selekzioarekin parte hartu zuen hitzordu garrantzitsu horretan eta ederki gainditu zuen. Igerilari gaztea bitan igo zen podiumera eta hiru Espainiako errekor berri zituen.

Uztailaren 31an lehiatu hasi eta lehen domina jantzi zuen Zudairek. 400 m. libre probako finalerako sailkatu eta arratsaldeko saioan, 05.05,91 marka eginez bigarren postua eskuratu zuen igerilariak.

Abuztuaren 2an, 100 m. bular probako finalean ere lan ederra



Zudaire, 400 m. libre probako podiumean. BURUNTZALDEA IKT

egin zuen zubietarrak. 01.38,14an amaitu zuen saioa eta brontzeko domina lortu zuen. Horrez gain, bina marka pertsonal eta Espainiako SB7 klaseko errekor hobetu zituen, 50 metrotakoa pasean eta 100 metrotakoa.

Egun bat geroago, 100 m. libree-tako finalean lehiatu eta bosgarren postuan sailkatu zen, 01.09,05.

Banakako azken proba abuztuaren 5ean egin zion aurre Zudairek, 200 m. lau estiloak. Kanporaketa gainditu eta finalean seigarren izan zen. Podiumean egotea lortu ez bazuen ere, bere marka pertsonala ondu (02.57,21) eta SM8 klaseko Espainiako errekor berria ezarri zuen.

Txapelketa amaitzeko, abuztuaren 6an, 4x100 m. errelebu mistoan parte hartu zuen zubietarrak lehen postuan. Taldea laugarren postuan sailkatu zen, 04.10,08.

Zudaire eta gainerako taldeko kideen jardunak Pariseko Paralinpiar Jokoetan aritzeko bederatziko plaza eman dizkiote taldeari. Aurtengo denboraldian erabakiko da zein igerilari izango dute Paralinpiar Jokoetan lehiatzeko aukera eta zubietarrak gogor egingo du lan Parisen egoteko.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO KADETEA

Martutene KE - Ostadar SKT
Larunbata. 10:30. Martutene, Donostian.

ARRAUNA

KONTXAKO BANDERA

Herriko arraunlariak kide dituzten Donostia Arraun Lagunak eta Hondarribiak 2. jardunaldia lehiatuko dute.

Igandea. 11:00. Kontxako badia, Donostian.

IGERIKETA

KONTXAKO IGERIALDIA

Herriko igerilari ugari ariko dira.
Larunbata. 11:45. Donostian.

LASTERKETA

URGULL KROSA

Herriko zein herriko taldeetako kideak Urgull Gaztelutxo krosean egingo dute lehia.

Larunbata. 11:00. Donostian.

ZALDI LASTERKETAK

UDAKO DENBORALDIA

Donostiako Sari Nagusia egongo da jokoan, udako denboraldia ixteko.

Igandea. 17:30. Hipodromoa.

Herritarrek, lan ona Espainiako txapelketan

Uztaileko azken zenbakian berri eman genuen modura, Open zein junior mailako Espainiako txapelketa lehiatu zuten hiru lasarteoriarrek: Buruntzaldea IKTko Garazi Etxeberria eta Bidasoa XXI taldeko Leire eta Ainhoa Martin ahizpek. Albistean lehen bi egun berri eman genuen eta jarduna laburbilduz, Ainhoak 200 m. bular probako zilarrezko domina jantzi zuen. Leirek, berriz, bizkar estiloko 50 m. eta 200 m. saioetako B finalean lehiatu zen.

Hirugarren jardunaldian, Ainhoa eta Leirek 400 m. lau estilo proban izan ziren igerian eta Leirek A finalerako txartela eskuratu zuen Delfin taldeko Paula Gonzalezekin batera denborarik onena eginez, 05.01,48. Arratsaldean urrezko dominarengatik borrokatu ziren biak. Gonzalezek eraman zuen urrea; Leirek, aldiz, zilarra (04.57,29).

Ainhoak, berriz, 05.12.84 egin zituen eta estiloen probaren ostean, 50 m. bularreko



Garazi Etxeberria, Malagan entrenatzen. BURUNTZALDEA IKT

sailkapena (34.51) ere lehiatu zuen. Ez estilo proban, ezta bularrekoan ere ezin izan zen finalerako sailkatu orkatileko arazo batzuegatik.

Uztailaren 29an, Etxeberriak 100 m. libre eta Leire Martinek 100 m. bizkar probetan egin zuten igeri. Leirek aurreko egunetako bizkar saioen antzera, B finalerako sailkapena eskuratu zuen eta 01.04,40 eginez hamahirugarren postuan amaitu zuen lehia. Buruntzaldea IKTko igerilariak, aldiz, estilo

libreko jardunean aste pare bat lehenago egindako marka antzekoa (01.01,79) egin zuen.

Azken jardunaldian, Ainhoa Martinek 100 m. bular saioa izan zuen; B finalean egin zuen igeri eta hamargarren izan zen (01.12,87). Proba horren ostean, ahizpek 200 m. lau estiloko sailkapen proban buruz buruko izan zuten, baina Ainhoa kaleratua izan zen. Leirek, aldiz, A finalean sartzea lortu zuen eta zazpigarren denbora onena egin zuen (02,21.03).

Lehen postuak, itsas zeharkaldietan

Hilaren 9an, Kontxako Badiako igerialdiak emango dio amaiera Gipuzkoako itsas zeharkaldien denboraldiari. Herritarrek zein Buruntzaldea IKTko kideak uztaile eta abuztuko hitzorduetan izan dira lehiatu eta batzuk maila onen jardun dira.

Uztailaren 30ean, Travesia de los Balleneros zeharkaldian, Donostiako portutik Zurriola hondartzara egin behar zen lehia. Itsasoaren egoera arriskutsua zela eta, antolatzaileek Donostiako Badia barruan egitea erabaki zuten. Distantzia motzean, Buruntzaldea IKTko Itsaso Tolosa hirugarren postuan helmugaratu zen eta 33.32 denborarekin emakumezkoetan lehena izan zen. Bigarren postuan taldekide June Lopez iritsi zen, 35.06 denbora eginez. Euren talde kide Igor Amantegi (37.19) eta Asier Gorostegik ere (38.11) parte hartu zuten. Distantzia luzean, aldiz, Joseba Egia herritarra izan zen lehiatu (01.10.01).

Abuztuaren 15ean, Paseo Berriko igerialdian, Leire Martinek lehen postua erdietsi zuen emakumeen mailan, 36.05. Buruntzaldea IKTko Juan Vicente Martin (42.07) eta Laura Igea (49.29) kideak ere helmugara iritsi ziren, baita Aitor Lurramendi (52.35) herritarra ere.

Irlako igerialdian ere lehen postuetan izan zen Buruntzaldea IKTko June Lopez; hirugarren (47.54) izan zen. Taldekide Itsaso Tolosa (50.34), Juan Vicente Martin (50.42) eta Asier Gorostegik (01.01.39) ere lan ederra egin zuten. Jorge Melillo (01.03.43) eta Aitor Lurramendi (01.11.06) herritarrek ere parte hartu zuten proban.

Gipuzkoatik kanpo ere lehiatu dira Buruntzaldea IKTko kideak. Adrian Garcia Lurca-ko Rio Negro ibaiaren igoeran eta Asturiasko Kopa zein Navia ibaiaren jaitsieran parte hartu zuten.



BURUNTZALDEA IKT



Lagunilla zalditeriko kideak, Mr. Sunshine eta Jaime Gelabert. ISAAC FARRÉ RICO

Denboraleari aurre eginez lehiatu dira Hipodromoan

Lasarte-Oriako Lagunilla zalditeriak saria eskuratu du Mr. Sunshine eta Gelabert zaldien eskutik

Txintxarri

Abuztuko sari nagusien ostean, hilaren 2an, Donostiako Hipodromoak Udako 107. denboraldiko azken aurreko jardunaldia bizitu zuen. Eguraldia izan zen protagonistetako bat. Euri jasek eta lokatzak ez zuten Hipodromo kide zein jockey eta zaldien jarduna eten, ordea. Eta pistara hurbildu ziren zaletu amorratuek zaldien lehiaz gozatu zuten. Egun berezia izan zen, gainera, herriko Lagunilla zalditeriarentzat. 2022ko apiriletik ez zuen saririk lortzerik izan eta laugarren lasterketan, Real Sociedad de Carreras de Sanlúcar de Barrameda sarian garaipena erdietsi zuen. Jaime Gelabert jockeyak gidatuta Mr. Sunshine nagusi izan zen saioan.

Horrez gain, eguneko sari nagusian, Irizar sarian Eye Of Heaven-Ricardo Nicolas Valle bikoak garaipen erraza eskuratu zuen. Lehen lasterketan, Maimouna eta Denisa Sikorovaren

eskuetara joan zen Peña Hípica Donostiarra saria. Zer esan handia eman zuen jockey gazteak jardunaldi horretan. Izan ere, Igeldo Mendiko Jolas Parkea sarian, Kerdina gidatzen eguneko bigarren garaikurra eskuratu nahi izan zuen Sikorovak. Azken metroetan buruz buruko lehia izan zuen Noozhah Sureña eta Gabriel Arguinzonekin, baina Nasser zalditegiko ordezkariak kendu zioten aukera.

Black Type sarian ere borroka ederra izan zuten Upsilon-Jaime Gelabert eta Barenton-Václav Janacek bikoek. Azkenek haien eskarmentua erakutsiz, erdietsi zuten garaipena.

Azken eguna

Eta udako denboraldiari agur esateko ordua iritsi da. Azkeneko saioa hilaren 10ean, igandearekin, jokatu dute, 17:30etik aurrera; lasterketen artean, Donostiako Sari Nagusia lehiatu dute.

Glatenferd Escobar eta Miguel Bermudez kolonbiarrak izan zituzten irakasle.

Maialen Chourraut kiroldegiko tatamian, aldiz, hilaren 4an izan zen lehen saioa. Aurten ere adinaren arabera astelehen, asteazken eta ostiraletan ordutegi ezberdinetan izango dira judokak lanean Gorka Aristegi entrenatzailearen aginduetara.

Lan gogorra egin beharko dute judoka gazteek urria hasieran lehen hitzordua izango baitute batzuek, kadete mailako Kantabriako Kopa.

Furundarena, bosgarren Espainiako txapelketan

Ostadar Atletismo saileko atletak urria zein azaroko hitzorduak prestatzeko lanean hasi dira

Txintxarri

Uztail amaieran, Ostadar SKT-ko Naroa Furundaren atletak maila absolutuko Espainiako txapelketan parte hartu zuen, Valentziako Torrent herrian. Herritarra jauzi hirukoitzeko proban lehiatuko zen eta, besteak beste, Ana Peleteiro eta Maria Vicente izan zituen aurkari. Rankingeko laugarren markarik onena zuen herriko atletak (13,33 metro) eta aurten hiru alditan igaro du 13 metroko langa.

Talde urdin-beltzeko kirolariak ez zuen egun ona izan, ordea. Zortziko finalera 12,64 metroko markarekin sailkatu zen eta 12,71 metroko jauziarekin bosgarren postuan amaitu zuen lehia.

Entrenamendu saioak

Merezitako oporren ostean, Furundarena zein Ostadar Atletis-



Furundarena, lehian. OSTADA ATLETISMOA

mo saileko kideak lanean hasi dira. Hilaren 4an Michelin kirolguneko atletismo pistan batu eta 2023-2024 denboraldiko lehen entrenamendua egin zuten. Urriaren zein azarokoan dituzten proba eta lehiaketetara forma onean iristea dute jomuga.



OSTADAR IPAR MARTXA

Beltzak RT, entrenamenduak eta Munduko Kopa

Denboraldia prestatze aldera, Beltzak Errugbi taldeko kideak lanean hasi dira. 16 urtez azpiko gazteak (2008-2009 urteak) izan ziren lehenak oporrei agur esaten; hilaren 5ean egin zuten lehen saioa Zarautzen. Senior eta 14 urtez azpiko mailako gazteak (2004-2005 urteak), aldiz, hilaren 6an izan zuten lehen entrenamendua Michelin kirolgunean. Gaur, aldiz, 12 urtez azpiko (2012-2013 urteak) zein 10 urtez azpiko (2014-2015 urteak) taldeen txanda izango da. Hitzordua 18:15ean da, herriko kirolgunean. Errugbi taldeko kideek kirol horretan lehen pausoak eman nahi dituzten haur eta gazteak gonbidatzen dituzte saioetan parte hartzera.

Bestalde, gaur hasi eta urriaren 28ra, Munduko Errugbi Kopa jokatu da Frantzia. Bordele da egoitzetako bat eta Beltzak RTko 50 bat kide hilaren 9an eta 10ean bidaia egingo dute bi neurketaz gozatzeko: Irlanda-Errumania eta Gales-Fiji.

Ikasturtea hasteko prest

Ostadar Ipar Martxa taldeko kideek hilaren 7an, ostegunarekin jarri zituzten makilak martxan. Taldeko arduradunek aipatu dutenez urtea hitzorduz bete da. Ostegunetan 19:00etatik 20:30era egingo dituzten entrenamenduez gain, hilabetero irteera edo ikastaroren bat izango dute. Mugikortasunaren egunaren egitarauaren baitan hilaren 21ean egingo dute lehen ekimena.

LOKEko judokak lanean

LOKE Judoko kideek ederki hasi dute hilabetea. Hilaren 1etik 3ra Zarautzen egin den VIII. Euskadiko Judo Training Camp jardunaldietan parte hartu dute. Euskadi, Nafarroa, Aragoi, Errioxa eta Frantziako judokak bildu ziren bertan eta besteak beste, Carmen Solana bilbotarra eta Nage No Kata modalitateko Munduko txapeldun

Tourreko porrako sariak

Espainiako Vuelta martxan dago eta Ostadar SKTk antolatzen duen lau itzuletako porrako irabazlea hilaren 17an jakingo den arren, hilaren lehenean Tourreko porrako sariak banatu zituen Patxi Larrañaga harategian. XI eta Lunaira txarteletan eraman zituzten 400 eta 200 euroko sari nagusiak, hurrenez hurren eta urdaiazpikoek ere izan zuten jaberik.



OSTADAR SKT

Larrañagatarren denda izan da beste behin (aurten hirugarren aldia da) puntu gehien lortu dituen

establezimendua eta euren tiketen artean onenari, Ziriando izenekoari, jakiz betetako otar bat oparitu dio.

ZORION AGURRAK



Haritz
Zorionak Haritz! Ondo pasa zure hamargarren urtebetetzean. Muxu handi bat etxekoan partetik!



Malen
Zorionak printzesa!!! Oso ondo pasa zure bostgarren urtebetetzean. Muxu pila bat familia guztiaren partez.



Araia
Zorionak bihotza!!! Ondo pasa zure egunean. 9 muxu goxo aitaxo eta amaxoren partetik! Urte askotarako!



Unai
Gero eta urte gehiago, baina amonak dauzkanak bete arte asko falta zaizu. Bitartean, disfrutat!



Xuhar
Zorionak Xuhar! Handitzen ari zaigu etxeko txikia...Ondo pasa zure bigarren urtebetetzean!



Claudia
Zorionak polita, asko maite zaitugu amak eta aitak.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN

Garaje marra alokatzen dut Urdaneta eraikinean, beheko solairuan. Sarbide eroso. Harremanetarako zenbakia, 620 18 87 87.

LANA

ESKAITZA

Zientzia arloak, ingelesa zein pintura eta manualitateak gaiak eskainiko dituzten irakasleak behar dira ikasturte osorako. Interesatuak bidali CVa info@zitek-akademia.com helbidera.

Jornada erdian etxea garbitu eta sukaldatzeko emakume euskaldun baten bila gabiltza. Kotxea izatea beharrezkoa da. Mugikorra: 644 11 61 22.

Bi umeei klaseak emateko neska edo mutil bat behar dugu. Bat LH4. kurtsoan dago eta bestea DBH4en. Utzi mezua whatsappean zure datuekin, adina, ikasketak, orduko prezioa... 688 74 09 31.

ESKARIA

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu

edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 666 31 79 60.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68.

Gaztea 24 urte, edozein lan egiteko eskaintzen naiz (zerbitzari, garbiketa...) FP-2 mekanizatua egina dut. Zubietan bizi naiz.

Harremanetarako zenbakia, 602 08 25 83.

Etxeko lanak egiteko edo pertsonak lagundu eta zaintzeko eskaintzen naiz. Orduka. Zubietan bizi naiz. Euskaraz ez dakit. 44 urte eta eskarmentua dut. Harremanetarako zenbakia, 602 08 25 83.

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaitez gurekin harremanetan

txintxarri@ttakun.eus
943-37 14 48
688 68 35 10

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 8 GIL

LARUNBATA, 9 GANDARIAS-URIBE

IGANDEA, 10 GANDARIAS-URIBE

ASTELEHENA, 11 ACHA-ORBEA

ASTEARTEA, 12 URBISTONDO

ASTEAZKENA, 13 GANDARIAS-URIBE

OSTEGUNA, 14 DE ORUE

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

K. Aizpuru Odriozola: Latxumbe Berri 11, Hernani. 943-33 60 77

'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

• ERREGISTROA: 943-37 16 29
• EUSKARAKO ZERBITZUA:
943-37 61 84
• KIROLDEGIA: 943-37 61 82
• MANUEL LEKUONA
• KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
• GIZARTE ZERBITZUAK:
943-37 61 79
• KIUB: 943-36 16 05
• UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
• MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

• OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
• DYA: 943-46 46 22
• GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
• UDALTZAINAK: 943-36 24 42
• ERTZAINZAK: 943-53 88 40
• SOS DEIAK: 112

txintxarri

Etxe ondoan, hanean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz



www.txintxarri.eus



Jaio da!

DEITU 943-37 14 48 TELEFONORA, BIDALI HAURRAREN IZEN-ABIZENAK ETA JAIOTZE DATA TXINTXARRI@TTAKUN.EUS HELBIDE ELEKTRONIKORA EDO 688 68 35 10 WHATSAPP ZENBAKIRA.

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administrataria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzzaileak:

Lide Hidalgo, Uxue Odriozola, Julene Iraola, Egoitz Epelde, Endika Merchan, Gorka Morales, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 8

LASARTE-ORIA Jaiak

Virgen de Guadalupe Extremadura Etxeak probintzia horretako zaindariaren omenezko jaiak ospatuko ditu Adarra kalean eta Jaizkibel plazan, jarduera hauek antolatuta:

18:00etan, haurrentzako jolasak.

19:00etan, bazkide eta lagunentzako luntxa.

19:15ean, Extremadurako jantzi tradizionalen desfilea.

19:30ean, Dinbi Banda batukada taldearen emanaldia.

19:45ean, postuaren irekiera eta pintxo potea.

22:30ean, DJ Nemux.

Sasoeta auzoa, 18:00etan.

LARUNBATA 9

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Lasartearra elkarrekin 50 urte bete dituela ospatzen ari da.

Jardueretako bat izango da bere egoitza (Erribera kalea, 10) abiatuko den danborrada.

Erribera kalea, 11:00etan.

LASARTE-ORIA Jaiak

Virgen de Guadalupe Extremadura Etxeak probintzia horretako



LASARTE-ORIA Jaiak

Virgen de Guadalupe Extremadura Etxeak probintzia horretako zaindariaren omenezko jaiak antolatu ditu. Elkarrekin horretako lehendakari Iñigo Garciaren hitzetan, "adin tarte guztietako herritarrentzat" prestatu dituzte ekimenak. Ospakizunetara bertaratzea gonbidatu ditu.

Sasoeta auzoa, hilaren 8tik 10era, goizetik hasi eta gauera arte.

zaindariaren omenezko jaiak ospatuko ditu Adarra kalean eta Jaizkibel plazan, jarduera hauek antolatuta:

12:00etan, Ama Guadalupekoaren omenezko meza. Tolosatik etorritako Flor de la Jara taldeak girotuko du elizkizuna.

12:30etan, Oaintxe in deu! txarangaren emanaldia. Sasoeta auzoan barrena ibiliko dira.

14:30etan, paella herrikoia.

16:00etan, futbolin txapelketa kooperatiboa, Jalgune elkarteko kideen eskutik.

17:00etan, LOZETen buruhandi eta erraldoiak.

17:00etan, herri kirolak.

18:00etan, karaokea.

19:30etan, Paula Letiziaren bakarriketa.

21:00etan, bazkideen afaria.

23:00etan, zezensuzkoa, LOZET elkartearen eskutik.

23:30ean, DJ AGF. Bukatu eta gero, Extremadura Etxeko kideek ogi mamiak banatuko dituzte.

Sasoeta auzoa, 12:00etatik aurrera.

IGANDEA 10

LASARTE-ORIA Jaiak

Virgen de Guadalupe Extremadura Etxeak probintzia horretako zaindariaren omenezko jaiak ospatuko ditu Adarra kalean eta Jaizkibel plazan. Festen azken egunerako jarduera hauek antolatu dituzte kideek:

10:30etan, marrazki lehiaketa, 2KN kafetegian.

11:30etan, haurrentzako jolas eta tailerrak.

12:00etan, ginkana.

13:00etan, LOZETen buruhandi eta erraldoiak.

13:00etan, Duende, Gitanillas del Alba eta Zambra taldeen emanaldiak.

14:30etan, herri bazkaria.

17:00etan, Brotes de Encina taldearen emanaldia.

18:00etan, bolo txapelketa, 18 urtetik gorakoentzat.

19:00etan, sari banaketa.

20:00etan, bandera jaistea eta festen amaiera.

Sasoeta auzoa, 10:30etik aurrera.

Entseguei ekiten ari dira herriko zenbait eragile

Erketz, Xumela eta Albokak haiekin batera aritzera animatu dituzte lasarteoriatarrak

Txintxarri

Ikasturte honetan dantzan edo kantuan aritu nahi duten herritarrek aukera bat baino gehiago dute horretarako, martxan jarri baitira herriko zenbait eragile.

Euskal dantzen bueltan aritzen dira, esaterako, Erketz EDTko kideak. Ezagutarazi dute ekin dietela prestaketa saioei, Garaikoetxea-Landaberri ikastetxean. Asteartero elkartzen dira, 19:00etan. "Nahi duen edonor" haiekin aritzera gonbidatu dute.

Alboka Abesbatzak ere ekin dio lanari. Entseguak astearte eta ostegunetan gauzatzen dituzte, Mirentxun, 20:00etatik 21:30era. Haiek ere "beso zabalik" jasoko dituzte kide berriak.

Azkenik, Xumela koruko lagunak datorren astelehenean hasiko dira, hilak 11, Oriarte Landaberri eraikinean, 19:30ean. "Ateak zabalik ditugu ongi pasa eta euskaraz kantari elkartu nahi duen ororentzat", nabarmendu dute kideek.

argazki lehiaketa

TXINTXARRI ALDIZKARIA



txintxarri@ttakun.eus
646 82 44 66 (WhatsApp)
txintxarri.eus/lehiaketa

2 U
0 D
2 D
3 A



2023-2024 ikasturtea UDAL EUSKALTEGIAN



C1
16-18 URTEKOENTZAT
20 EURO

A1 eta A2 tituluak euskaltegia bertan lortzen dira.
B1 (1HE), B2 (2HE) eta C1 (3HE-EGA)eko azterketak egiteko prestatu.

IKASTAROAREN IRAUPENA: 2023KO IRAILETIK 2024KO EKAINERA

- Astelehenetik ostegunera. Astean hamar ordu. Txandaka ibiltzeko aukera maila guztietan
- Hiru ordutegi aukeran: 09:00-11:30 | 15:00-17:30 | 18:30-21:00.
- Online (BOGA).
- 16 urtetik gorakoentzat.

HAMAR KUOTATAN ORDAINTZEKO
AUKERA IRAILAREN 20A BAINO
LEHEN IZENA EMANEZ GERO.



Lasarte-Oriako UDAL EUSKALTEGIA (Bekokale bidea, 1) Tel: 943-36 16 21 - euskaltegia@lasarte-oria.eus BULEGO ORDUTEGIA: 08:30-19:00

HERNANIKO KIROLDEGIAN IRAILAK 17, 17:30ean

Sarrerak: 10,00€
(+ eragiketa gastuak)

30 DOBERA
EUSKARA ELKARTEA

euskara hurbil,
zu urrun heltzeko

MARIKULAZIOA ZABALIK

- Maila guztiak: A1, A2, B1, B2, C1 eta C2
- AURREZ AURREKO ESKOLAK (tutoretzekin)
- AUTOIKASKUNTZA
- AZTERKETA OFIZIALAK PRESTATZEKO IKASTAROAK
- GURASO TALDEAK
- JUBILATUENTZAKO TALDEAK
- MINTZA-TALDEAK: Astean 2 egunez.

16-18 urte adi!

dirulaguntza-lerro berria,
C1 maila doan prestatzeko

20 € baino ez duzu ordaindu beharko

eman izena!
irailaren 28a arte

Muntteri AEK euskaltegia

euskara praktikoa

Geltoki kalea 17 Lasarte-Oria | 607 62 52 33 | lasarte@ae.eus Bulego ordutegia: 11:00-13:00 / 17:00-19:30

30. URTEURRENA 1993-2023
Beti zuei laguntzeko prest!

2023-2024 IKASTURTEA

Laguntza taldeak Ikasketa teknikak

- LH - DBH - BATXILLERGOA - ZIKLOAK
- Zientziak | Letrak
- HIZKUNTZAK: Euskara, Ingelera eta Frantsesa

Ongi etorri ikasturte berrira!

Irailean matrikula doan

Goikale Kalea 12, behea.
Lasarte-Oria. 943-36 31 06
info@zitek-akademia.com
www.zitek-akademia.com